


creencia subyacente de que el problema vasco es un problema intravasco en el mejor de los casos o simplemente una “invención” nacionalista.

Si después de casi veinticinco años en que buena parte de los libros de historia escritos en y sobre Euskadi desmenuzan el nacionalismo vasco desde un punto de vista, a veces crítico, a veces visceralmente contrario, con unas situaciones políticas, sociales, económicas, culturales y religiosas radicalmente diferentes a las de la época de Sabino Arana, sin que el apoyo social de este movimiento haya descendido de forma significativa, tal vez sea hora de que, entre otros, los historiadores replanteen su forma de aproximarse a este fenómeno. Un modo de hacerlo sería ampliar el análisis al conjunto de la sociedad vasca, desde aquellos sectores que están más próximos a las distintas corrientes del nacionalismo, hasta aquellas formaciones o grupos que, por diversas razones, se han opuesto no sólo al nacionalismo, sino a todos aquellos elementos de la sociedad y la cultura vasca que contribuían a reforzar una conciencia identitaria diferenciada. Eso, unido al estudio, como se ha indicado, de las diferentes actitudes que históricamente ha tenido España frente al hecho nacional vasco, contribuirán, sin duda, a una explicación más verosímil de lo que está sucediendo en nuestro país. Una explicación que tiene que ser necesariamente compleja, atendiendo a las aportaciones de personas con teorías y análisis sensiblemente diferentes. Resulta sintomático en este sentido que en la mesa redonda que dio fin a las jornadas no participase persona alguna que mantuviese una opinión crítica sobre el último proceso estatutista o defendiese una actitud independentista. Tal vez sea una muestra de que pese a los deseos y esfuerzos de la editora para que el mundo académico desarrolle su producción de conocimiento al margen del contexto político, esa separación sea harta complicada en el País Vasco.

Mikel Aizpuru Murua



ESARTE MUNIAIN, Pedro
Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico
 Pamplona-Iruña : Pamiela, 2001. – 911 p. : il. col. y n., mapa ; 22 cm. – (Pamiela ensayo y testimonio; 47). – ISBN: 84-7681-340-6

Neutraltasuna ezinezkoa da. Liburu guztien atzean, ideologia jakin bat dago, eta baieztapen hori ukatzen dutenak, usu dira lerratuenak. Kritikak ere, ez dira horretatik libro. Bada, Pedro Esarte Muniain elizondarrak eskaini digun liburuaz datorrena prisma horretatik ikusi behar da.

Izenburuaren azterketa bera, arestian esandakoaren frogagarri dugu. Alde bate-tik, Esartek, konkista hitza erabili du, garai historiko horren gertakizunak izendatzeko tenorean. Aspaldi ez dela, anexioa hitza zen gehien erabiltzen zena, eta egun ere, ofizialtasunaren arrimoan elikatzen diren argitalpenek, nagusiki, hitz hori darabilte. Alta, badirudi, konkista hitzarena gailenduko dela, Huici, Olaizola, Urzainqui eta beste batzuen lanek bide horretara garamatzate.

Bestaldetik, konkistaren garaia 1512-1530 aroan kokatu du. Arestian aipaturiko anexion hitzaren zaleek 1512ra mugatzen dute gertakizunen azalpena. Gauzak honela, eta Nafarroako erresumako gerra zibilaren aurrekariak abiapuntu harturik, 1530 arte, Erresuma zaharrak jasan zituenak ditugu aztergai. Liburuaren izenburuak biltzen dituen, konkista, okupatze eta menperatzea ulertu ahal izateko, nahitaezko zaigu aro horren azterketa.

Hiru hamarkada xerkan

Jadanik, gure historiografiaren mugarrria dugu, *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico* liburua. Emaitza, zenbait ikerketa lanen –aipaturiko Huici, Olaizola, Urzainqui– jarraipentzat har daiteke. Alta, zenbait bereizgarri aipatu behar ditugu. Ikuspuntuarena dugu aurrena. Esartek garai hartako protagonistei eman die hitza. Izen handien historiaz haratago, gertakizun militarren azterketaz haratago, horiek ekarri zutena dugu aztergai, okupatzea, eta azken batean, bereganatzea nola gauzatu zen aztertzen da. Garai historiko horren ankerra pairatu zuten herritarrak dira ikerketaren muina. Horien, jarrera, ekintza, sofrimendu eta beselako lekukotasun ditu harilkatu elizondarrak.

Bigarrenik, eta aurrekoaren ondorioz, aztertutako dokumentazioaren itzela gailentzen zaigu, bereziki, Nafarroako Artxibategi Nagusiko Prozesuak eta Protokolak atalen azterketa. Duela hiru hamarkada atal horietan xerkan hasi zenean, inork lanari mardula, ziuraski amaitezina zela iritzi zion. Era berean, Iruñeko Katedraleko eta Elizbarrutiko artxibategiak, Simancas eta Hondarribiko Udal Artxibategia aztertu ditu.

Merituen zerrenda dirudien honetan, ezin aipatu gabe utzi, lan egiteko era. Kasik hiru hamarkada behar izan ditu, hemezortzi urte horien azterketa egiteko. Nekez epai dezakegu lan honen balorea, egilearen ibilbidea ezagutu gabe. Nekez ekar ditzakegu orriotara, urte horietan egindako joan-etorriak, artxibategietan xerkan igarotako orduak, lan bibliografiaren handia, inoiz gauditutako beharreko *langak*...

Lau dira liburua osatzen duten atalak. Lehenbizikoak, konkistaren aurrekariak, 1512 konkista bera, Erresuma berreskuratzeko aurreneko saioa eta 1515 urte bitarteko okupazioa biltzen ditu.

Bigarren atalak, 1515-1521 urte bitartekoa aztertzen du, hau da, bigarren eta hirugarren saioaren arteko urteak. Bertan, Esartek ikerketaren hasmentatik antzeman zuen gertakizuna baieztatzen du. Izan ere, hirugarren saioaren ondorengo giroa ezagutzea, izan zen bere kezketako bat, eta gauzak honela, Nafarroako erresumak 1521eko berreskurapen saioaren ondoren bizi zuen bake eta normaltasun giroa ekarri digu. Hauxe dugu, liburu honen ekarpenetako bat, inoiz ere, gure historiografian aipatu izan dena, alimalezko lanaren ondoren frogaturik.

Noingo batailaren ondorengo neurri errepresiboak dira hirugarren atalaren aztergaia. Konkistaren lehenbiziko urteetan hasitako lanaren jarraipena da hori. Gutxienez, mende oso batek iraun zuen errepresioa.

Laugarrena eta azken atalak, Hondarribiako gertakizunak, Nafarroa Beherean jaso zirenak eta okupazioaren ondorengo menperatzearen ezaugarriak aztertzen ditu. Ondarreko zatiei dagokienez, zerrenda onomastiko baten falta somatu dugu.

Beste bat apalerako

Arestian esan bezala, historiografian, azken urteotan gure iraganaren ezagutza aldarazi, inoiz irauli, dituzten liburuak argitara eman dira. Begibistako da ekarpena. Zoritxarrez, ez da gure iragana ezagutzea, liburu horiek aintzat hartu duten anitzen

xedea. Aintzat diogu, inoiz liburua irakurri gabe baliatzen baita ustez dakarrena. Horien helburua, ez da gure iragana ulertzea, egun darabilten diskurtsua indartzea dute xede bakarra. Horren mesedetan goratzen dira hainbat liburu, esan ez badugu, anitzetan irakurri gabe.

Gauzak honela, Esarterenak ere, denon gogoan diren beste liburuek hartu duten bide bera har dezake. Horrelakoetan, eta gure plegu eta gabeziak ezaguturik, "beste bat apalerako" esaldia datorkigu burura. Eduki *beharreko* liburua, obra erostea hautu ideologiko bilakatzen da, irakurtzearena ...

Menperatuen historia

Historia garaileek idazten omen dute, eta galtzaileei literaturaren eremua geratzen omen zaie. Topiko bilakatu da aurreko baieztapena. Bestaldetik, nahitaezko da garaiko literatura ezagutzea, aro jakin bateko soziologiaz jabetzeko. Inoiz, gure iragan hurbila aztertzeo tenorean, beharko ditugu irakurri, Epaltza, Alonso, Taberna, Gil, Muñoz, Zabaleta, Borda, Taberna, Luku, Perurena, Irigoien, Mariano zena, Lizarralde, Olasagarre, Barandiaren, –zerrenda luzeegia, jakina, ukazioaren zantzuak dira– eta hainbat idazleen lanak.

Sanchez-Ostizek zazpi nobelen bidez azaldu nahi du *gurea*, ez du izenburu makala aukeratu: *Las armas del tiempo*. Aurretik Campion, Baroja, Unamuno, Urabayen saiatu eta ezer lortu zutelakoan gaude, Antoñanak ez du etsi, hori bera eskatzen diogu askok.

Bada, Esartek garai hartako protagonistei eman dien une beretik, literaturari zabaldu dio langa. Ez naiz, liburuaren balore literarioz ari, idazleek obra honetatik baliatu dezaketenez baizik. Idazleak, dozenaka nobela idatz ditzazke liburuan den informazioarekin. Liburuan du idazleak, besteak beste, Konkista garaiko soziologia. Giroitze lana egina du, eta kasu honetan, ustezko galtzaileak ez du literaturaren arrimoan lan egin behar izan. Historia idatzi du Esartek.

Patxi Larrión Galdeano



ESTUDIOS sobre Regionalismo en la Unión Europea

[Iñaki Pariente de Prada, Maite Zelaia ed. lit.]. - En: Azpilcueta. Cuadernos de Derecho / Eusko Ikaskuntza. - Donostia. - N. 16 (2001). - 407 p. ; 24 cm. - ISBN: 84-8914-935-5.

Azpilcueta. Cuadernos de Derecho reúne en su número 16 el contenido de dos Jornadas de Estudio del Grupo de Estudios Europa-Euskal Herria, subsección de Derecho de Eusko Ikaskuntza, que se celebraron en Donostia-San Sebastián los días 14 y 15 de diciembre de 1998 sobre *Regionalismo e Integración Europea*, y 14 de abril de 2000 sobre el *Comité de las Regiones ante la Conferencia Intergubernamental*. Se recoge el texto de las ponencias presentadas y varios anexos de documentos sobre las respectivas materias.